

UPV/EHUK, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2012-2013) –**1.4 puntua: Gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea**– eta otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 33.2 artikulua – Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek “(...), jakintza arlo guztietako irakaslanean eta ikerketa-lanetan genero ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta **emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako ekarpen sozial eta historikoa jaso dadin** bermatuko dute”– betetzeaz baliatuz, jatorriz edo adopzioz euskaldunak izan ziren eta beren lanbideetan aitzindariak izan ziren emakumeen izenak eta ekarpenak berreskuratu nahi ditu. Lehenengo izena María Goyri da; Algortan jaio zen 1874an, baina gazterik joan zen Madrilera.

Pertsona egokia da zerrendaren buru izateko, emakumeen berdintasunaren alde (*Revista Popular* aldizkarian “Crónicas femeninas” izeneko atala zeukan) eta euskal kulturaren alde (“Aplicación del modelo romancero de análisis a la balada vasca: bereterretxen khantoria”) egin zituen lanengatik.

## María Goyri (1874-1955)



“Talentu, kultura eta energia handiko pertsona da, eta bere senarra eta seme-alabak galbideratu ditu; oso limurtzailea da, Espainiako pertsonarik arriskutsuenetakoa. Zalantzarik gabe, iraultzaren sustrairik sendoenetakoa da”.

(Segoviatik Defentsa Nazionaleko Batzordeari bidalitako txostena, 1937-1938)

16 urterekin Filosofia eta Letren Fakultatean ikasten hasi zen (1891/1892 ikasturtea) entzule gisa, matrikulatu gabe, eta Sustapen Ministerioari matrikula bat irekitzeko baimena eskatu zion. Ondorengo urterako matrikulatzeko baimena eman zitzaion, baina korridoreetan ez egoteko, ikasgelara katedradunarekin batera sartzeko eta ikasgelan gainerako ikasleekin eseri beharrean, irakaslearen ondoko aulki batean esertzeko baldintzarekin. Filosofia eta Letretako lizentzia lortu zuen lehenengo emakumea izan zen, 1896an, eta doktoregoa 1909an lortu zuen, *El Conde Lucanor* liburuari buruzko tesi batekin.

Haren iloba María Teresa Leónen arabera: “María Goyri bere lehenengo eskola emateko unibertsitateko atean agertzerako, atezain bat zeukan zain. Ikasleen harridurarako, irakasleen gelara eraman zuen. Han, Filosofia eta Letretako dekanoa hurbildu zitzaion modu zeremoniatsuan: ‘Andereño, hemen geratuko zara eskola-ordua iritsi arte. Ni etorriko naiz zure bila’. Atea giltzaz itxi zuen eta haren egitekoak betetzera joan zen. Txirrinak jotzean, irakaslea itzuli zen, atea ireki, eta besoa eskaini zion. Astiro joanarazi zion bi ikasle-lerroren erditik; ikasleak harrিতuta eta ironiko geratu ziren eta beren unibertsitatean sexu berdintasuna ezustean sartu zela ikusi zuten”.

1982an, Madrilgo Ateneo aretoan, hain zuzen Biltzar Pedagogiko Hispano-Portuges-Amerikarrean, Concepción Arenalek emakumeen heziketari buruzko hitzaldia eman zuen, eta bi eskaera egin zituen: prestakuntza intelektuala eta gorputz hezkuntza. Carmen Rojo Maistren Eskola Normaleko zuzendaria gorputz hezkuntza aldarrikatzearen guztiz aurka agertu zen, eta biltzarreko parte-hartzaileen artean eztabaida gogorra piztu zen, Mariak gorputz hezkuntzaren alde hitz egin zuen arte, bere bizitzako esperientzian oinarrituta. Haurra zenetik ariketa fisikoa egin behar izan zuen, amak bultzatuta, jatorri tuberkulosoko artritis bati aurre egiteko.